


Euskal AEko industria-jarduera % 39,0 jaitsi da 2020ko apirilean

2020ko lehen lau hilabeteetako balantzea ixteko, industria-jarduera % 13,1 murriztu da

Euskal AEko industria-ekoizpenak % 39,0 egin du atzera 2020ko apirilean, 2019ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hilabetearekin alderatuta (2020ko martxoa), Euskal AEko industria-ekoizpena % 25,7 murriztu da urtaroaren eraginak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko apirilako indizearen bilakaera, 2019ko apirilarekin alderatuta, negatiboa da industria-sektore handi guztientzat. *Ekipo-ondasunak* % 48,5 jaitsi dira; *Bitarteko ondasunak*, % 45,8. Lehenengoen artean, motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen fabrikazioa edo aireontziak eta itsasontziak egitea dira nagusi; bigarrenen artean, berriz, metalurgiako eta metalezko produktuen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa edo kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Kontsumo-ondasunek, oro har, % 23,3 egin dute behera, zeren *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 46,9 egin baitute behera, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, berriz, % 17,7. *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* epigrafean altzariak, etxeko aparatuak edo produktu elektronikoak fabrikatzeko jarduerak daude. Elikagaiak fabrikatzea, prozesatzea eta kontserbatzea, garbiketarako eta higienarako produktuak fabrikatzea

eta jantziak egitea dira, besteak beste, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* sektore handiaren barruko jarduerak.

Energia % 7,9 jaitsi da. Sektore horretako jarduera azpimarragarrienen artean energia elektrikoa hornitzea eta petrolio fintzea daude.

Hiletik hilerako aldakuntzak ere, 2020ko apirilekoak 2020ko martxoarekiko, bilakaera negatiboak izan ditu industria-sektore handi guztientzat. *Ekipo-ondasunek* % 34,5 egin dute behera, *Bitarteko ondasunek* % 28,7 eta *Kontsumo-ondasunek*, oro har, % 16,8 egin dute behera, bi ondorio negatiboren konbinazio gisa: *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 29,7 egin dute behera, eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek*, berriz, % 14,4. *Energia* % 9,9 jaitsi da.

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko apirilean jaitsiera handienak izan dituztenak, urtetik urterako aldaketetan, honako hauek izan dira: *Garraio-materiala* (% 64,9 behera), *Kautxua eta plastikoa* (% 56,7) eta *Metalurgia eta metalezko produktuak* (% 47,8), behin egutegiko eraginak zuzendurik. Sektore garrantzitsuenen artean, *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* da, % 1,1eko murrizketarekin, gutxien jaitsi dena.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-47,8
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurrina	-1,1
09 - Kautxua eta plastikoak	-56,7
13 - Makineria eta tresneria	-35,3
14 - Garraio-materiala	-64,9
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	-19,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-34,8
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-13,6

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurraldeen arabera, Industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan, bereziki Araban, % 47,9ko beherakada izan baitu. Bizkaian % 37,6koa izan da beherakada; Gipuzkoan, azkenik, % 35,3koa.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko apirila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Api2020 / Api2019	A(Api2020) / A(Api2019)(*)	Api2020 / Mar2020	Mar2020 / Ots2020
Indize orokorra				
Euskal AE	-39,0	-13,1	-25,7	-20,0
Araba/Álava	-47,9	-16,4	-30,4	-29,7
Bizkaia	-37,6	-11,9	-27,3	-14,9
Gipuzkoa	-35,3	-12,4	-21,2	-19,1
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-23,3	-4,5	-16,8	-8,9
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-46,9	-12,9	-29,7	-27,0
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-17,7	-2,6	-14,4	-4,5
Ekipo-ondasunak	-48,5	-16,3	-34,5	-27,6
Bitarteko ondasunak	-45,8	-17,0	-28,7	-24,3
Energia	-7,9	1,5	-9,9	-0,4

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

OHARRA COVID-19AREN KRISIAK APIRILEKO IPI-N DUEN ERAGINARI BURUZ

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak alarma-egoera deklaratu du **COVID-19ak** eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko.

Gerora hartutako ez-ohiko neurrien ondorioz, apirilean zehar establezimendu askoren ohiko jarduera partzialki edo guztiz geldiarazi da.

Egoera horren ondorioz, handitu egin da Industria Produkzioaren Indizea eraikitze behar den informazioa lortzeko behar den ahalegina, bai inkestatutako enpresen aldetik, bai informazioa biltzen eta tratatzen duten langileen aldetik.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten enpresa guztiei egindako ahaleginagatik, aparteko zirkunstantziak gorabehera. Horiei esker, apirileko indizea laginaren % **91,6ko estaldurarekin** kalkulatu da, eta maiatzean jaso da haren informazioa.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62